

*Larunbat honetan, urriaren 22an, 22:00etan, Baztartxo Antzokian*



[Demode Quartet](#) taldeak “Epa!” ikuskizuna aurkeztuko du larunbat honetan Baztartxon. Hitzordua 22:00etan izango da eta sarrerak aurrez Udaletxeko Kultura sailean 6 eurotan eskura daitezke. Leihatilan, berriz, 8 eurotan egongo dira salgai.

“Epa!” taldearen bigarren ikuskizuna da. Lehenengoak “Demode Quartet” zuen izenburutzat eta “a capella abestutako bertsioz beteriko antzerki ikuskizun bat zen, gainera pianoz, biolaz, gitarrak eta kaxoi flamenkoaz lagundutako abestiak ziren, koreografia eta elkarrizketa bitxiekin”. Oraingoan, diotenez, lehenengo ikuskizunaren gakoak mantendu dituzte baina “Areta Franklin, Queen edo Madona, Itoiz, Lertxundi edo Leterengatik ordezkatuta”.

Patxi Barcoren zuzendaritzapean, Mikel de la Fuente, Joli Pascualena, Iker Huitzi eta David Rosco dira interpreteak.

Taldeak 2010ean ekin zion bere ibilbideari eta ordutik Donostiako Zinemaldiaren edota Donostia-Europako Kultur Hiriburuaren ekitaldietan hartu du parte.